

Helburuak


- Elementu kimikoen ezaugarriak ezagutu

Aurretik jakin beharreko kontzeptuak

- Egoera fisikoak: solidoak, likidoak, gasak
- Dalton-en eredu atomikoa
- Balentziak, loturak.

Programa martxan jartzeko

Programaren izena "ChemLand6" da eta Inicio / Programas bidetik jartzen da martxan




Properties of Matter

Jarraian agertzen den pantailan "Properties of Matter" (Materiaren ezaugarriak) aukera hartu.

"Properties of Matter" aukeraren barnean, "Phases of the Elements" programa hartu.

Properties of Matter

Gas Laws
Henry's Law
Gas Phase Boltzmann Distribution
Liquid Phase Boltzmann Distribution
Equilibrium Vapor Pressure
Phases of the Elements
Enthalpy of Dissolution
Colligative Properties
Different Gas Laws
Density of Gases



Main Menu

Programa honetan elementu kimikoen egoera fisikoak aztertuko ditugu eta egoera fisiko horiek tenperaturarekin nola aldatzen diren.


Tenperatura gradu Kelvin-etan dator (K) eta tenperatura aldatzeko, desplazamendu barran klik egin behar da:



Aktibitateak

AKTIBITATEA: Galderak erantzun

Tenperatura pixkanaka handitzen joan. Zein bi elementu dira gas egoerara pasatzen direnak lehenengoz?




Irudikatu bi elementu horiek gas egoeran, kontutan harturik bat gas noblea dela eta besteak balentzia bat duela.

Helio gas noblea	Hidrogeno

AKTIBITATEA: Galderak erantzun

Zein tenperatura eskala-mota da K eskala?



Zenbat °C dira 1 K?

Zenbat K dira 20°C?

Zein ekuazio erlazionatzen ditu °C eta K?

Zergatik deitzen zaio K eskalari "eskala absolutoa"?

AKTIBITATEA: Galderak erantzun

Zeintzuk pasatzen dira gas egoerara lehenago, metalak ala ez-metalak?

Zein da lehen talde osoa gas egoerara pasatzen dena? Zein temperaturan gertatzen da hori (K eta °C)?

Zein da lehen elementu metaliko urtzen dena (likido egoerara pasatzen dena)? Zein temperaturan gertatzen da hori?

AKTIBITATEA: Galderak erantzun

Giro temperaturan (300 K inguru) zein substantzia dira gasak? Substantzia horiek metalak ala ez-metalak al dira?

Giro temperaturan (300 K inguru) eta elementu guztiak ikusirik, zein egoera fisikoa da nagusi, solido, likido ala gasa?

Zein da gas egoerara pasatzen den bigarren taldea? Talde horretan metalak ala ez-metalak daude?

AKTIBITATEA:

Zein ez-metal da urtzeko (solidotik likidora pasatzeko) zailena?

Zein metal da urtzeko zailena?

Bonbiletan wolframio (W) metala erabiltzen da. Zergatik?